

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Moldaketei eta konponketei hegan egiten uztea



Enaren geometria.
Rafa Rueda.
Autoekoizpena.
Iraupena: 45'54".
5 euro.

MUNGIAKO MUSIKARIAREN bakarkako laugarren lana are eta kontzeptualagoa, sakonagoa eta irekiagoa iruditu zait. Enarak eta haien zein gure joan-etorriak eta eraldaketak ditu abiapuntu. Musikari dagokionez, Rafa Ruedak oraingoan ere pop-aren inguruan hegan egiten du, baina bestelako ñabarduraek lur hartu dutela esango nuke, gitarrek protagonismoa duten pop-rocketik harago joan dela. Erritmo eta bateria gogoragoak ditu,

Arkaitz Minerren laguntzarekin Irlandako folkera hurbiltzeko gai da; baita mugaldekoak eta latinoak diren musika estiloetara eta funky-jazz beltzera ere. Punta-puntako musikariez inguratu eta konponketak egiterakoan askoz irekiago egon da mungiarra. Disko hau zuzenekoetan edo berari eskatuta soilik eskuratu daiteke; eta agertokierra talde handia eramaten du.

www.rafarueda.net

Rafa Rueda

«Badirudi helburua ez dela kultur transmisioa, estruktura ekonomikoari eustea baizik»

Distantzia. Urrundu eta gauzak handik ikustea?

Distantzia bidaiaren parte da. Mundu berriak deskubritu ahala, zure mundua urrunetik nolakoa den ikusten duzu. Batzuetan, beritasuna abiapuntua berraurkitzea da. Diskoan norberaren ezagutzarako bidaia agertzen da etengabe.

Enarak. Hobe, memoria gabe, lainoetan elipseak egiten galtzen utziko bagina?

Enarak diskoaren abiapuntua dira. Garajea habia nuen eta harritzen ninduen urtero etortzeko zuten gaitasuna. Enaren etengabeko bidaia eta gure bizitza oso parekagarriak dira. Behin eta berriz aurkitzen gara pertsona eta egoera beren aurrean baina bidaiaren esperientziak, hala-beharrez eta aldi berean, egoera eta pertsona ezberdinen aurrean jartzten gaitu, gu ezberdinak izanik ere. Enarak berak ez dira inoiz habi berberera itzuliko eta guri askotan antzeko zerbait gertatzen zaigu: atzo berdea zena, gaur urdin. Eten-

gabe ari gara aldatzen, izen berbera dugun arren.

“Dylanen kantu baten erdian inor bagina, eternal ginateke”. Entzuleei zer sentiarazi nahi diezu?



Ahalik eta kanta onenak egiten saiatzen naiz. Helburua jendearengana heltzea da, emozioak transmititzea. Gustatuko litzaidake entzuleek zerbait jaso dutela sentitzea, entzun aurretik baino hobeto sentitzea. Niretzat musika hobeto bizitzeko baliabidea da, hori zabaldu nahi dut.

Berriro autoekoiztea erabaki duzu, eta bizkarra eman diezu banatzaile eta dendei. Jarraitzaileak saritu nahi dituzu?

Benetako jarraitzailea saritu nahi dut, baina baita ere uste dut gure musikaren industria ez dagoela modu jasangarrian eraikita eta horrek lanaren gutxiestea dakar. Badirudi helburua ez dela kultur transmisioa osasuntsu mantentzea, estruktura ekonomikoari eustea baizik. Ekonomia eta artearen arteko oreka behar da. Sortzaile eta jarraitzailearen arteko harreman ezberdin baten bila nabil. ■

